

Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta ekipamendu publikoen diseinutik?



**Miramar Jauregia eta
Lekuona Fabrika (Errenteria)
Irailak 10-11**



Kolaboratzailea



Aurtengo ediziorako lurraldea ardatz izatea proposatzen dugu. Lurraldea ikuspegi zabal batetik aztertu nahi dugu, bereziki, gizarte azpiegitura edo komunitarioaren zentzuan oinarritu nahi dugu.




Izan ere, azpiegitura sozial edo komunitario bat pertsonen arteko harreman etengabeak edo errepikakorrak errazteko pentsatutako azpiegitura fisiko moduan ulertzen dugu. Lurralde planifikazioaz ari gara, ekipamendu eta espazio publikoek, eta horien diseinuaz. Gizarte azpiegituraren kontzeptua berriki proposatu du E. klimenbergekek, eta esaten digu gizarte azpiegitura dela kapital soziala sortzen duen azpiegitura fisikoa. Gure gizarte harreman kopurua, barietatea eta aniztasuna, gure kapital soziala, funtsezkoa da gure garapen pertsonalerako eta gure ongizate erlazional eta materialerako.

Hiriak, herriak, eskolak, kiroldegiak, liburutegiak, gizarte etxeak, parkeak eta plazak pentsatu, diseinatu eta antolatu daitezke, jendea bertan elkartu eta harremanak izatea errazteko. Harreman horretatik abiatuta, harreman hori ohikoa edo errepikatua denean, bizilagunen arteko ezagutza eta errekonozimendua, mehatxu partekatuen aurrean elkartasuna eta, azken batean, gizarte kohesioa aktibatzen duten loturak sortzen dira.

Liburutegiak, kultura eta hezkuntza zentroak edo espazio publikoak eraiki daitezke, erabiltzaileen arteko harremana, lotura eta ekintza bateratua zein zerbitzuaren efizientzia eta eraginkortasuna edo kalitatea kontuan hartuta.

Kontua ez da nahitaez eraikin berriak eraikitzea, baizik eta egungoei asmo hori ematea. Horrek aldaketak eska ditzake espazioaren diseinu fisikoan eta, batez ere, zerbitzuak antolatzeko eta emateko moduetan harremanak heldu, lagundu eta errazteko.

Ikastaro hau TopaGune programan sartu da. Programa parte-hartze maila handiagoa sustatzen duten ikastaroek osatzen dute. Horretarako, ikastaroaren zuzendaritzak, UIKeko zuzendaritza akademikoak eta ikastaroa erraztuko duten pertsonak elkarrekin diseinatzen dituzte partaidetza hori sustatzeko dinamikarik egokienak.



Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta ekipamendu publikoen diseinutik?

Helburuak:

- Argitzea nola eragin dezakeen ekintza komunitarioan lurralde zein herri/hiri antolamenduak, espazio publikoaren diseinuak eta ekipamendu publikoen diseinuak.
- Identifikatzea zeintzuk izan daitezkeen herri/hiri eta espazio publikoen diseinuan kontuan hartu beharreko gako nagusiak, harreman errepikakorrak ahalbidetzeko.
- On-hartzen zaituzten ekipamenduen bereizgarriak identifikatzea: diseinua, proiektua eta herritarren parte hartzea oinarri hartuta

(Euskaratik gaztelaniara itzulpen zerbitzua izango da)

Programa

Irailak 10, asteartea.

Miramar Jauregia

Naon Tokin: Herri bat hainbat ahots
Dejabu Antzerki Konpainia
(Egun osoko instalazioa)

9:30 - 10:00

Sarrera instituzionala. Irune Berasaluze, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernatzatza Diputatua, eta Mikel Pagola, Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialerako Zuzendaria

10:00 - 10:40

Elkarbizitzarako espazioak giza hartu-emanen oinarri
Koldo Telleria. EHUko Arkitektura Goi Eskolan irakasle

1.ATALA:

Lurralde eta hiri antolaketa ekintza komunitarioa errazteko
Gidaria: Koldo Telleria (EHU)

10:50 - 11:20

Cohesión social, territorio y acción comunitaria
Ricard Gomá. Politika Zientzietan irakasle Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB)

11:20-11:50

Deskantsua

11:50-12:20

Hiri-azterketarako adierazleak eguneroko bizi eta harreman komunitarioen ikuspegitik: Itsaso Larramendi. Arkitektoa eta Tipi kooperatibako kide

12:20-13:00

Hizlariekin solasaldia

13:00-13:30

Talde dinamika: Lurralde eta hiri antolaketak ekintza komunitarioa errazteko gakoak. Iciar Montejo eta Zorione Aierbe. Prometea, SC



Programa

Irailak 10, asteartea

Miramar Jauregia

13:30-15:00

PINTXO- BAZKARIA.
Miramar Jauregian

2.ATALA:

Espazio publikoen diseinuaren garrantzia herritarren arteko harremanak eta ekintza komunitarioa errazteko.

Gidaria: Andere Ormazabal

Herritarren partaidetza eta garapen komunitarioko masterreko zuzendaria (EHU)

15:15 - 15:45

Ikuspegi bat: Ane Lore Mendinueta. Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkitektoa.

15:45-16:15

Tresna bat. Miren Vives eta Patxi Galarraga. Arkitektoak eta Projekta Urbeseko kideak.

16:15-16:45

Esperientzia bat. Mikel Valero. Arkitektoa eta Hiritik At kooperatibako kide.

16:45-17:15

Hizlariekin solasaldia

17:15-18:00

Talde dinamika: Espazio publikoak ekintza komunitarioa errazteko gakoak. Zorione Aierbe eta Iciar Montejo, Prometea SC

Programa

Irailak 11, asteazkena.

Lekuona Fabrika



3.ATALA:

On(h)artzen gaituzten ekipamendu publikoak:
diseinutik proiektura.

Gidaria: Oscar Rebollo (UAB)

9:00 - 10:25

Bisita gidatuak Lekuona Fabrikan (euskaraz eta gazteleraz)
**Ikusi oharra*

10:25-10:35

Irekiera instituzionala. Aizpea Otaegi Errenteriako Alkatea **eta Mikel Pagola**, GFA-ko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialerako Zuzendaria.

10:35 - 11:05

Equipamientos que acogen: del diseño al proyecto. Oscar Rebollo. Soziologian irakaslea Universitat Autònoma de Barcelona

11:05 - 11:35

Una propuesta: LOKALA. La activación de locales en desuso para usos domésticos y comunitarios. Maria Arana. Arkitektua eta Urbanbateko kide

11:35-12:00

Deskantsua

12:00-12:30

Proiektu bat: Servicios Sociales de cuidados en BIZAN. Maite Ruiz de Sabando. Gasteizko Udala.

12:30-13:00

Ikuspegi bat: Kultur ekipamenduak diseinutik proiektura: Iker Tolosa. Larrotxene kultur etxeko Zuzendaria Donostiako Udala.

13:00-13:30

Hizlariekin solasaldia

13:30-14:25

Talde dinamikak: Ekipamendu publikoen diseinu eta proiektuek ekintza komunitarioa errazteko gakoak. Zorione Aierbe eta Iciar Montejo, Prometea SC

14:25-14:30

Itxiera instituzionala



Tokia

Irailak 10, asteartea



Miramar Jauregia

20007 Donostia, Gipuzkoa

Irailak 11, asteazkena.

Lekuona Fabrika

Ugarritze Etorbidea, 1 20100
Errenteria, Gipuzkoa



Nota: Lekuona Fabrikan bi bisita gidatu egingo dira programa barruan. Bisitari kopurua gainditzen bada, aukera izango da eguerdian edo arratsaldean bisita gehiago antolatzeko



Izen ematea



Kolaboratzailea

